

**EUSKADIKO GAZTERIAREN KONTSEILUKO 34. BATZAR OROKORRA****EGK-k Batzorde Iraunkorra berritu, elkarteek aurkezturiko hainbat proposamen adostu eta kide berriak onartu ditu**

- **Itsaso Anduezak** (Hezkide Eskola) **EGK-ko presidente** bezala jarraituko du, **Maite López de Aguilera** (Lilith - Emakume Gazteak) **1. presidenteorde berria** izango da eta **lau elkarte berri Batzorde Iraunkorrean** sartu dira
- Gazteen plataformak **hiru kide berri** onartu ditu: **Euskal Gorrak** (Gazteria), **Uzturre Kultur Elkarte** eta **Ekintza Katoliko Orokorra** (azken hau, bazkide begirari gisa)
- Batzarrean inoiz **baino proposamen gehiago** eztabaidatu eta hainbat onartu dira, besteen artean, ETaren desagitea exijitu, Sahara eta bertako Hassanna Aalia aktibistari babesa eman eta lan munduan emakumeen berdintasuna eskatzeko

**Donostia, 2015eko martxoaren 14a.** Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak bere **34. Batzar Orokorra** egin du Donostiako Gazte Gunean (CRAJ), **parte-hartze handiarekin**. Bilera hau urtero egiten da eta bi urtetik behin gertatzen den bezala, gazteekin lan egiten duten 60 euskal elkarte inguru biltzen duen plataformak bere Batzorde Iraunkorra berritu du, EGKren jarduna urtean zehar zuzentzen duen organoa. 2013tik presidentea den **Itsaso Anduezak** (Hezkide Eskola) **presidentzia** lanean jarraituko du eta **Maite López de Aguilera** (Lilith - Emakume Gazteak) **1. presidenteorde berria** da. Batzorde Iraunkor honek hamaika kide ditu eta, hemendik aurrera, horrelakoa izango da:

**PRESIDENTEA:** Itsaso Andueza, Hezkide Eskola.

**1. PRESIDENTEORDEA:** Maite López de Aguilera, Lilith - Emakume Gazteak.

**2. PRESIDENTEORDEA:** Iratxe Larrunbide, Bizkaiko Gaztetxoaren Koordinakundea.

**DIRUZAINA:** Uzturre Kultur Elkarte.

**IDAZKARIA:** JSE-Egaz.

**BOKALAK:** Kale dor Kayiko, Iratzarri, Gazte Kanpusa, Euzko Gaztedi, Gazte Abertzaleak eta FJVE - Junior Enpresen Euskal Federazioa.

EGK-k **hiru kide berriei** ongi etorria eman die: **Euskal Gorrak** (Gazteria), **Uzturre Kultur Elkarte** eta **Ekintza Katoliko Orokorra** (azken hau, bazkide begirari gisa); bestalde, lau elkarteek EGK utzi dute jardunik ez dutelako edo euren artean zuten gazteria taldeak indarra galdu edo desagertu delako: Astitxoak, Bepiztu, Taupaka Elkarte eta Universidad y Desarrollo. Horrela, guztira, hemendik aurrera EGK-k **60 kide** izango ditu.

**INOIZ BAINO PROPOSAMEN GEHIAGO**

EGK-ko **elkarteek edo Batzorde Iraunkorrek proposamenak aurkezteko eskubidea** daukate, eztabaidaren ondoren, Batzarrak onartu ditzan. Kideek **bide hau inoiz baino gehiago erabili** dute eta hamaika ekarri dira Batzarrera. Hauek dira onartu diren guztiak:



- Gazte batek lanpostuan bitzta galdu edo istripu larri bat izatearen ondorioz gazteriaren prekarietatea salatzen [protokoloa](#) (EGKren Batzorde Iraunkorra).
- Sahararen onarpena eskatu eta bere aldeko kanpainetan parte hartzeko [proposamena](#) eta Hassanna Aalia aktibista gazteari asilo politikoa emateko [proposamena](#) (JSE-Egaz)
- Enpresa bateko soldata altuen eta txikien arteko alde handia ez izatearen aldeko [proposamena](#) (JSE-Egaz)
- Gaztetxe baten utzaraztearen ondorioz EGK-k jarraian martxan jartzen zuen protokoloa deuseztatu eta horren inguruko edozein erabakia Batzorde Iraunkorrean uztearen aldeko [proposamena](#) (JSE-Egaz)
- Lan munduan emakumeen berdintasuna babestu eta bultzatzeko [proposamena](#) (Lilith - Euskadiko Emakume Gazteak).
- "3+2" unibertsitate ikasketen erreforma bertan behera uzteko [proposamena](#) (Gazte Kanpua).
- Batzorde Iraunkorraren eginkizunen inguruko [proposamena](#) (Euzko Gaztedi).
- ETAren behin-betiko eta aldebakarreko desegitearen aldeko [proposamena](#) (Iratzarri)

Azkenik, EGK-k 2014an burutu zituen **ekintzen memoria** eta **2015erako aurrekontua eta lan-plangintza onartu dira**. Aurreko urteetan bezala EGK-k **hitzarmenak** sinatuko ditu **Eusko Jaurilaritza** (Gazteria Zuzendaritza eta Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusia) eta **Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiarekin**; **Arabako Foru Aldundiarekin**, ordea, **ez da adostasunik lortu** bi proiektu zehatz aurkeztu arren. 2014an bezala, **Vitoria-Gasteizko Udalarekin** akordio bat sinatzea aurreikusten da.

Aurten **lan-arlo hauek** jorratuko dira: hezkuntza eta astialdia, enplegua eta etxebizitza, parte-hartzea, bakea eta bizikidetzak, komunikazioa eta berdintasuna.

**Eusko Jaurilaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren gazteria zuzendariak**, Jon Redondo eta Jokin Melida, hurrenez hurren, Batzarrean ere **egon dira** eta elkarteetako ordezkariak eta gonbidatuak agurtzeko aukera izan dute. **Nafarroako Gazte Kontseiluko** Batzorde Iraunkorreko **kide bat** ere Donostian izan da.

Euskadiko Gazteriaren **Kontseilua Eusko Legebiltzarrak maiatzaren 27ko 6/1986 Legearen bitartez sortu zuen Zuzenbide Publikoko Erakundea da** eta, hurrengo urtean, 30 urte beteko ditu.

EGKren egunerokotasuna jarraitzeko, [www.egk.org](http://www.egk.org) webgunean sartu, [Piztu!](#) buletinean harpidetu edo [Facebook](#), [Twitter](#) eta [Instagram](#) orrialdeak jarraitzea gomendatzen dugu.

+info eta elkarrizketak:  
688 67 59 32 / 943 429767

Iñaki Goikoetxea Arrufat - EGK-ko komunikazioa